

Kutxabank kaudimenean nagusi da berriro ere

- **Europako Banku Agintaritzaren gardentasun txostenak Espainiako bankuen buruan eta Europako batez bestekoaren gainetik kokatu du berriro ere, % 17,61eko 'CET1 fully loaded' ratioarekin**
- **Berankortasun-ratiorik baxuena, oinarrizko kaudimen maila altuena eta palanka-ratiorik onena ditu Bankuak**

2023ko abenduaren 12an. Kutxabank, S.A.-k kontuan hartzen ditu gaur Europako Banku Agintaritzak (EBA) eta Europako Banku Zentralak (EBZ) egindako iragarpenak, 2023an Europar Batasun osorako gardentasun ariketari buruz, eta EBako Ikuskatzaileen Kontseiluak hartutako erabakiak betetzeari buruz.

Erreferentziatzko gardentasun ariketa EB osoan

EBako Zaintza Batzordeak EB osorako gardentasun ariketarako paketea onartu zuen, eta 2016 urteaz geroztik urtero egiten da eta arriskuen ebaluazioaren txostenarekin batera (RIR) argitaratzen da. Urteko gardentasun-ariketa COREP/FINREP aplikazio-eremuari eta aplikazio-esparruari buruzko datuetan oinarritzen da soilik, merkatuko partaideei informazio-maila nahikoa eta egokia bermatzeko. EBAk inprimakiak bete zituen eta, ondoren, erakundeei eta arduradunei bidali zizkien egiaztatzeko. Bankuek aukera izan zuten hautemandako akatsak eta datuak zuzentzeko ohiko jakinarazpen-bideen bidez, ikuskaritza helburuetarako, eta gehitu ahal izan zuten banakako datuak argitzeko beharrezkoa zen informazio zehatza.

Europako Banku Agintaritzaren txosten berriak berretsi du Kutxabanke kaudimenean lidergo postuetan jarraitzen duela, sistema osoko indize onenatariko batekin, bere **Core Tier1** 2023ko ekainaren amaieran **% 17,66ra iritsi baitzen 'phased in' bertsioan.**

'CET1 fully loaded' ratioaren kasuan (kapitalaren kalkulua behin-behineko kalkulu-arauak kontuan hartu gabe), **% 17,61era** iristen da, eta, horrekin, lehendik zuen aldea handitu du gainerako banka-alorrarekiko. Indize honek Kutxabank Espainiako bankuen buruan kokatzen du eta Europako batez bestekoaren gainetik.

Europako Banku Agintaritzaren txostenak ere agerian uzten du Kutxabanke lidergo posizio argia duela **'phased in' palanka-ratioan**, arriskuen ponderazioa kontuan hartzen ez duena. Bere indizea berriro ere onena da, **% 8,03** 2023ko ekainean.

Gardentasun-txostenak aurrerapen nabarmenak erakusten ditu finantza Taldearen gainerako adierazleetan. **Berankortasun-ratioa % 1,4ra** jaitsi da, alorreko baxuena, eta

aktiboen kalitateari dagokionez lidergoa egonkortzen du. Bere negozio-ereduaren sendotasuna errentagarritasunaren, merkatu-arriskuaren, kreditu- eta arrisku-subiranoko esposizioen, zalantzazko saldoen eta birfinantzatutako esposizioen hobekuntzan ere ikusten da.

Gardentasun ariketaren emaitzak ikuskaritza-agintek eta nazioarteko **kalifikazio-agentzia nagusiek** urtean zehar argitaratutako txostenei gehitu zaizkie. Hauek oso balorazio positiboak egin dituzte berankortasunaren ratio baxuari, kaudimen nabarmenari eta finantza Taldearen errentagarritasunaren bilakaera positiboari buruz.

Kutxabanki buruz

Kutxabank Euskadiko eta Kordobako finantza erakunde nagusia da. 700 bulego inguru ditu, jatorriko lurraldeetan kapilaritate handiena duen bulegoen sarea du, eta Andaluzian, Madrilen eta Katalunian presentzia nabarmena du. 5.000 profesioaletik gorako lantaldearekin, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sisteman kaudimen onena duen bankua da, eta Europako arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.